DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

BERDINTASUNAREN ALDEKO DONOSTIAKO EMAKUMEEN KONTSEILUA
CONSEJO DE LAS MUJERES DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN POR LA IGUALDAD

# Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektoriala – Consejo Sectorial para la Igualdad

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Eguna, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2017ko abenduaren 14a** / 14 de diciembre de 2017<br>**Urgull Aretoa, Udaletxea** / Sala Urgull, Edificio Consistorial<br>**18:00** / A las 18:00 horas |
| **Amaiera-ordua**<br>Hora de finalización | **20:00 /** A las 20:00 horas |

## GAI-ZERRENDA:
## ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko aktaren onarpena** | 1. Aprobación del acta anterior |
| **2. Indarkeria matxistari buruzko urtea amaitu arteko sentsibilizazio kanpainak.** | 2. Campañas de prevención sobre violencia machista hasta fin de año. |
| **3. ASADE sindikatuaren eskaera** | 3. Solicitud de Sindicato ASADE |
| **4. Ebatzi gabeko kontuei buruzko oharrak** | 4. Notas de “Asuntos pendientes” |
| **5. Genero indarkeriaren biktimekin esku-hartze eta koordinaziorako protokoloa** | 5. Protocolo de intervención/ coordinación con víctimas de violencia de genero |
| **6. Norberak lekarkeenak** | 6. Ruegos y preguntas |

## BILERAN PARTE HARTU DUTE:
## HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | | |
|---|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARIA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | **PSE-EE: Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria**<br>PSE-EE: Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad Cívica, Igualdad y Cooperación | |
| **TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK**<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | 1. **EH BILDU**<br>2. **IRABAZI - GANAR DONOSTIA** | 1.<br>2.<br>3.<br>4.<br>5. |

| | | |
|---|---|---|
| **HERRITARREN ELKARTEAK ETA, BERDINTASUN ARLOAN, GIZARTEAN GARRANTZI BEREZIA DUTEN KOLEKTIBOAK**<br>ENTIDADES CIUDADANAS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL EN EL ÁMBITO DE LA IGUALDAD | **1.- ARRATS Elkartea / Asociación ARRATS**<br>**2.-ASADE Elkartea / Asociación ASADE**<br>**3.- ASADE Sindikatua / Sindicato ASADE**<br>**4.- ERNE**<br>**5.- Gipuzkoako Emakume Banatuen elkartea/Asociacion de Mujeres Separadas de Gipuzkoa**<br>**6.- Elkartu** | <br>1.<br>2.<br>3.<br>4.<br><br>5. |
| **Norbanakoak**<br>Mujeres a título individual | | |
| **EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE EDO EZ DIRA ETORRI**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA Y/O NO ASISTIERON | **1.- EMAKIN**<br>**2.-Plazandreok**<br>**3.- Dandai**<br>**4.-INTXAURRONDO BERRI**<br>**5.-Donostiako Berritzegunea**<br>**6.- EMAKUMEAK ETA HIRIA FOROA / FORO MUJERES Y CIUDAD**<br>**7.- LAB**<br>**8.- EAJ**<br>**8.- PP**<br>**9.-PSE – EE**<br>**10.- Marivi Eizaguirre**<br>**11.- Agurtza Zubero**<br>**11.- GEHITU** | |
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>CUERPO TÉCNICO MUNICIPAL | **Berdintasun Agentea / Agente de Igualdad**<br><br>**Atalaren burua / Jefa de Sección** | |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Berdintasunaren aldeko Kontseilu Sektorialeko bederatzi kide eta bi udal teknikari, idazkaritza tekniko lanetan.**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = **9**<br>**Gizonezkoak /** Hombres = **0**<br><br>9 personas integrantes del Consejo Sectorial para la Igualdad y 2 representantes del equipo técnico municipal como secretaría técnica | |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO | **Berdintasun Bulegoa** - Negociado de Igualdad<br>Okendo 9 / 943 48 34 64 / berdintasuna@donostia.eus | |

# SAIOAREN BILAKAERA:

## DESARROLLO DE LA SESIÓN:

### 1. Aurreko Kontseiluaren akta onartzea

Onartzen da

### 2. azaroaren 25eko ebaluazioa

Berdintasun teknikariak azaldu du aurten data aldaketa ondo funtzionatu duela, eta aurtengo apustua gazteria sailarekin Beldur Barik indartzeko ondo joan dela. Ekintza puntuala baino, prozesu bat bezala bultzatu behar dugula esan du. Aurten gazteria sailarekin egin den lanarekin pozik daude bi departamentuak. Sari lokala eginez, ikusi da parte-hartzea kuantitatiboki handitu dela. Kualitatiboki, gazteek egin duten lanketa ere hobetu da, baina bullyingarekin nahasten da gehiegi, eta indarra galdu egiten da. Honen harira, azaldu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak Bizikasi programa berria atera duela, bullyinga lantzeko helburua duena, eta berdintasun teknikarien hausnarketa da arriskua dagoela indarkeria matxista urtu egingo den, bullingak baduelako indarkeria matxista osagai bat. Beharrezkoa da lantzea bullyinga genero ikuspegiakin.

Dataren inguruan, aipatu du aurten prentsaurrekoa 2 aste bakarrik aurreratu dela, eta hori ez omen dela nahikoa, jarduera batzuk ordurako eginda bazeuden eta. Baina, beste aldetik, asko aurreratzen bada inprimatzera bidaltzen denean ez dira sartzen bukaerako jarduerak. Aurten jarduera gutxiago egon dira, eta ea departamentuak elkarteekin lanketa gutxiago egiten den eztabaidatu da.

Kontseiluak, aurten, ez du ezer berezirik data garrantzitsu horretan, ezta azkeneko urteetan egin ohi den irakurketa, eta eztabaidatu da ea agian udaran lantalde bat sortu behar den hortaz lan egiteko. Planteatu da ea egin behar den udalarekin batera, edo bereizi. Proposatu da hastea lantzen iraileko batzorde iraunkorrean, eta lantzea urriko kontseilurako.

Beste aldetik, aipatu da emakume gutxi etortzen direla kontseilura, eta orain arte egindako lantaldeak ez omen dutela ondo funtzionatu. Pertsona batzuk erre dira eta ez

### 1. Aprobación del acta del Consejo anterior

Se aprueba.

### 2. evalución 25 noviembre

La técnica de Igualdad informa de que este año el cambio de fecha ha funcionado bien y que la apuesta con el Departamento de Juventud para reforzar Beldur Barik ha ido bien. Manifiesta que se debe promover como un proceso, antes que como una actividad puntual. Los dos departamentos están satisfechos con el trabajo realizado este año junto con el Departamento de Juventud. Organizando el premio local, hemos podido ver que la participación ha aumentado cuantitativamente. En lo referente a la calidad, el trabajo realizado por los y las jóvenes también ha mejorado, pero se confunde demasiado la violencia machista con el bullying y pierde fuerza. Al respecto, la técnica manifiesta que el Gobierno Vasco ha lanzado el programa Bizikasi que tiene como objetivo trabajar el bullying, pero que cree que existe el peligro de que se diluya la violencia machista, que es un componente del bullying . Es esencial abordar el bullying desde la perspectiva de género.

Respecto a la fecha, comenta que la rueda de prensa este año solo se ha adelantado dos semanas y que eso no es suficiente ya que algunas actividades ya se habían realizado. Pero, por otro lado, si se adelanta demasiado, no entrarán algunas actividades. Este año se han organizado menos actividades y se debate si el Departamento ha trabajado menos con las asociaciones.

Este año el Consejo no tiene nada especial para esa importante fecha, ni siquiera la lectura que se ha venido realizando durante los últimos años. Por ello, se debate si durante el verano se habrá que crear un grupo de trabajo para hablar sobre ello. Se plantea si se realizará con el Ayuntamiento o por separado. Se propone empezar a redactarlo en la comisión permanente de septiembre y tratarlo en el consejo de octubre.

Por otro lado, se comenta que acuden muy pocas mujeres al consejo y que hasta ahora los grupos de trabajo no han funcionado bien. Algunas personas se han quemado y ya no acuden y no se desea que se quemen las

dira jada etortzen, eta ez dute nahi dauden pertsonak ere erretzea. Planteatu da ea arrazoia omen den ez delako espazioa legitimatzen, ezta behar den garrantzia ematen.

personas que quedan. Se plantea si la razón es que no se legitima el espacio ni se le da suficiente importancia.

## 3. zirriborroan dauden proiektuak: Ordenantza eta protokoloa

Berdintasun teknikariak adierazi du nola nola doazen memento honetan departamentuak eskuartean dituen 2 proiektu inportante horiek.

Ordenantza: alde teknikoki, elkarteek egindako ekarpenak sartu dira zirriborroan. Idazkaritza juridikoak aztertu behar dute dokumentua. Ordenantzak hainbat sail, departamentu eta erakunde eragiten du, beraz, atalez-atal landu behar da urtarrilean. Ondoren, berriro pasako zaie kontseilukideei zirriborroa.

Indarkeria matxistari buruzko protokoloa, urtarrilaren 10ean eragileekin lantzeko bigarren bilera egingo da. Kontseilukide batek galdetu du ea zergatik eman den atzerapena, eta berdintasun teknikariak azaldu dio data bat finkatu zela lehenengo bilera egin baino lehen, baina gero ikusita zein motatako ekarpenak egin ziren, luzatu egin da prozesua, normala denez.

Kontseilukide batek kritika zorrotz bat egin dio protokoloari, eta jarraitu den prozesuari. Bere ustez, ez da ondo berraztertu, onartu nahi da lehenbailehen, elkarteei errua botatuz elkarteak presioa egiten ari direla azkar onartzeko. 2 urte eta gero, Ongizatek Berdintasunari pasa dio, gauza asko ez omen zeuden ondo eginda, eta berdintasun ikuspuntutik oso gaizki omen dago. Planteatu du hain txarra denez, puskatu egin behar ote dela, zerotik hasteko.

*Teknikariak erantzun dio protokoloan momento honetan zer egiten den jasotzen duela, ez da plan estrategiko bat non jartzen den zer egin behar den etorkizunean. Teknikarien planteamendua da dokumentua ez eramatea gorenera, hori ez baita protokolo baten helburua.*

## 3. proyectos en borrador: ordenanza y protocolo

La técnica de igualdad explica en qué punto están en estos momentos los dos proyectos importantes que tiene entre manos el departamento.

La ordenanza: respecto a la parte técnica, en el borrador se han recogido las aportaciones realizadas por las asociaciones. La secretaría jurídica examinará el documento. La ordenanza afecta a varios departamentos, áreas e instituciones. Por tanto, se trabajarán por partes en enero. Después, se mandará el borrador a las integrantes del consejo.

El protocolo sobre violencia machista: el 10 de enero se hará una segunda reunión para trabajarlo con las agentes. Una integrante del consejo pregunta el por qué de su retraso y la técnica de igualdad informa de que se fijó una fecha antes de la primera reunión, pero que viendo las numerosas aportaciones realizadas el proceso se ha retrasado.

Una asistente critica duramente el protocolo y el proceso. En su opinión no se ha revisado correctamente; quieren aprobarlo cuanto antes culpando a las asociaciones, y están presionando para que se apruebe cuanto antes. Después de 2 años, Bienestar se lo ha pasado a Igualdad, alegando que muchas cosas no estaban bien hechas y que desde el punto de vista de la igualdad está muy mal. Plantea que si tan malo es, habrá que romperlo y empezar desde cero.

*La técnica responde que el protocolo recoge lo que se está haciendo ahora, no es un plan estratégico que establece lo que hay que hacer en un futuro. Las técnicas proponen no elevar el documento (en el sentido de no plasmar en él lo máximo que se desea alcanzar), ya que ese no es el objetivo de un protocolo.*

## 4. 2018ko aurrekontu proposamena

Aurrekontuen proiektuarekin doan genero ikuspegia jasotzen duen txostena bidali zaie

## 4. propuesta de presupuesto 2018

Se ha enviado a las miembros del consejo el informe en que se analizan los presupuestos con

kontseilukideei. Mantendu dira partida more batzuk, eta berdintasun sailean zuzenean ere igoera batzuk daude. Kontseilukide batek aipatu du oso tresna baliagarria dela, oso argi ikusten direlako udaleko puntu ahulak eta erronkak. Dokumentuan ikusten da departamentu askotan ez dela jasotzen sexuen arabera informazio bereizita, eta oso garrantzitsua da informazio hori izatea. Ogasunean serio hartu dute, eta txostena aurrekontuekin batera entregatu da. Beste kontseilukide batek aipatu du nahiz eta berdintasun sailean igoera izan, aurrekontu osoa kontuan hartuz ehunekoa txikitu egin dela.

Bukatzeko, aipatu da hurrengo batean agendak hobeto koordinatu behar dira ez dadila kointziditu aurrekontuen aurkezpena kontseiluaren data berdinarekin.

## 5.- Kontseiluko lan batzordeen berrikuspena

Aurreko batzorde iraunkorrean, aipatu da gainbegiratu egin behar dela kontseiluan antolatu diren lantaldeak nola dauden, ez omen direlako biltzen ari. Aktiboago egon zena indarkeriarena omen da, baina 2017 osoan ez da bildu. Kontseilukideek aipatu dute agian lantalde berriak egin baino lehen jadanik irekita dauden gauzak itxi egin behar direla, eta Kontseilua ez dela ondo funtzionatzen ari. Aztertu behar da zergatik partaidetza murrizten ari den. Kontseilukide batek salatu du pendiente dauden gaien zerrendari ez zaiola erantzunik eman, eta horregatik ere egonezina dagoela.

Zinegotziak adierazi du partaidetzatik egiten ari direla kontseiluen ebaluazioak. Behaketa egiten dute kontseiluetan, eta elkarrizketak egingo dira idazkaritzarekin, batzorde iraunkorreko kideekin eta lehendakariordearekin; galdetegiak ere bidaliko zaizkie parte-hartzaileei. Gero kontraste bilera egingo da. Otsaileko bilerara etorriko dira. Kontseilu guztiak aztertuko dituzte genero aldetik eta hizkuntzen erabilera kontuan hartuz. Gero, martxorako, neurri batzuk hobetzeko proposatuko dituzte.

Kontseilukide batek kritikatu du puntu kritikoei buruz aurten bilera bat bakarrik egin dela, eta informatiboa izan dela. Bere ustez, beste kontseilu batzuetan ere gertatzen ari da, eta Udal Gobernuak

perspectiva de género. Se han mantenido las "partidas moradas", y en el Departamento de Igualdad algunas han aumentado. Una asistente opina que es una herramienta muy valiosa, ya que se ven muy claramente las debilidades y los retos del Ayuntamiento. En el documento se puede observar que muchos departamentos no recogen la información desagregada por sexos, y es muy importante disponer de esa información. En Hacienda se lo han tomado muy en serio y han entregado el informe junto con los presupuestos. Otra miembro comenta que aunque en el Departamento de Igualdad haya habido una subida, teniendo en cuenta el presupuesto total, el porcentaje ha disminuido.

Para finalizar, se menciona que para la próxima habrá que coordinar mejor las agendas para que la presentación de los presupuestos no coincida con la fecha del consejo.

## 5.- Revisión de Comisiones de trabajo del Consejo

- En la anterior comisión permanente se mencionó que hay que supervisar los grupos de trabajo creados en el consejo, porque no se están reuniendo. El más activo ha sido el de violencia, y no se ha reunido durante todo el 2017. Las asistentes comentan que quizá antes de organizar nuevos grupos se deberían cerrar todos los asuntos están por resolver, y subrayan que el Consejo no está funcionando correctamente. Hay que examinar por qué está disminuyendo la participación. Una miembro del consejo pone de manifiesto que no se ha respondido a tareas que están pendientes y que por eso hay cierta impaciencia.

La concejala manifiesta que en Participación están evaluando los Consejos. Van a hacer observación de una sesión, y entrevistas con la secretaria, con las integrantes de la comisión permanente y con la vicepresidenta; asimismo, se remitirá un cuestionario a las personas participantes. Después se organizará una reunión para contrastar. Acudirán a la reunión de febrero. Inspeccionarán todos los Consejos teniendo en cuenta el género y el uso de los idiomas. Después, para marzo, propondrán unas medidas de mejora.

Un miembro critica que este año solo se ha realizado una reunión sobre los puntos críticos y que ha sido informativa. En su opinión, ocurre lo mismo en otros Consejos y el Gobierno Municipal debería plantearse si de verdad

planteatu beharko luke ea benetan elkarteen hitza nahi duten, ala bakarrik entzule bezala egotea, gero sortzen baitira dinamikak inorentzat eraikitzaileak ez direnak.

quieren escuchar a las asociaciones o que solo acudan como oyentes, ya que después se crean dinámicas que no son constructivas para nadie.

Planteatu da ea arazoa orokorragoa den, hiriko arazoa. Nola bihurtu kontseilua erakargarria hiriko eragile feministak parte-hartzeko. Proposatu da agian hau izan behar duela hutsune bat jasotzeko eta aztertzeko IV Berdintasun Planarako egingo den diagnostikoan.

Se plantea si el problema es más general, si es un problema de la ciudad. Cómo hacer que el Consejo sea atractivo para que las agentes feministas participen. Se propone que quizá este sea una necesidad para recoger y examinar en el diagnóstico que se llevará a cabo para el IV Plan de Igualdad.

Beste aldetik, aipatu da arautegian 10. artikuluan jasota dagoela, Kontseiluko kide izaeraren galera dakarrela, segidako bi bilkuretara edo segidakoak ez diren hiruetara zuritu gabe huts egiten dutenean. Adostu da ez solapatzeko Partaidetzako ebaluazioarekin, eskatuko zaiela haiek bidaliko duten galdetegian txertatzea kontu hauek. Lantaldeak, oraingoz, bertan-behera geratuko dira, eta hemendik aurrera, bilera monografikoak egingo direla, lantaldeak antolatu beharrean.

Por otro lado, la normativa, en el artículo 10, establece la pérdida de la condición de vocal por la falta de asistencia sin justificar de dos sesiones seguidas o tres no consecutivas del pleno del Consejo. Se acuerda que para que no se solape con la evaluación de Participación, se les pedirá que incorporen estos temas en el cuestionario que remitan. Los grupos de trabajo, por ahora, se disolverán y de aquí en adelante se realizarán reuniones monográficas, en vez de organizar grupos de trabajo.

## 6.- Norberak lekarkeena:

Gizarte Kontseiluan Berdintasun Kontseiluaren ordezkari den kideak adierazi du saio bat egin dela, eta bertan Turismo plana, aurrekontuak, eta herri-pertzepzioari buruzko inkestak aurkeztu direla. Bere kexa erakutsi du, Gizarte Kontseiluaren funtzionamendua dela eta.

Hurrengo batzorde iraunkorraren data finkatzen da: urtarrilak 18.

## 6.- Ruegos y preguntas:

La representante del Consejo de Igualdad en el Consejo Social informa de que se ha organizado una sesión donde se han presentado el Plan de Turismo, los presupuestos y las encuestas sobre percepción de la ciudad. Pone de manifiesto su queja sobre el funcionamiento del Consejo Social.

Se fija la fecha para la próxima comisión permanente: 18 de enero.